



**Arartekoaren apirilaren 5eko ebazpena. Horren bidez, Astigarragako Udalari gomendatzen zaio Ergobia auzoan kokatuta dagoen (...) jardueraren sustatzaileari ingurumeneko legeria bete dezala eska diezaion.**

### Aurrekariak

1. Pertsona batek Arartekora jo zuen 2011ko azaroan Astigarragako landa lurzoruan kokatuta dagoen (...) enpresaren jabetza den kutxatila batetik datorren isuriaren aurrean administrazio jarduerarik bideratu ez zela salatzeko.

Erreklamatzailleak esan digunaren arabera, salaketen ondoren, Astigarragako Udalak abenduaren 17ko 1292/2010 Dekretuaren bitartez eskatu zuen azaroaren 4ko arkitektoaren txostenean antzemandako gabeziak zuzentzeko. Ebazpen horretan bertan hilabeteko epea eman zen egokitzapen obrak egiteko eta ingurumeneko lizentzietan ezarritako baldintzak aintzat hartu gabe jarduera burutzeak ekar zezakeen behin-behineko arau-haustearen berri eman zen.

Erreklamatzailleak salatu zuenez, bi urte igaro ondoren, ez ziren behar bezalako neurriak hartu eta jardueratik zetozen uren isurketatik sortutako kalteak pairatzen jarraitzen zuen. Jardueraren titularrek betetzeko borondaterik ez dutela kontuan hartuta, erreklamatzailleak erakunde honetara jo zuen udalari aipatu ebazpena betearaz zezan eskatzeko.

2. Erreklamazio hori izapidetzeko onartuta, 2011ko abenduan Astigarragako Udalari informazioa eskatu genion, aipatutako dekretua betearazteko jarraitutako jarduerari buruzkoa.

Informazio hori ez ziguten aurreikusitako epean bidali eta Arartekoak beste bitan ere eskatu behar izan zuen (2012ko urtarrilaren 6an eta 2012ko urriaren 17an).

Azkenik, udalak 2012ko azaroko txosten bat bidali zigun (...) garatzen den jardueran salatutako hutsuneen inguruan jarraitutako jardueren berri emateko.

Horrela bada, jasota dago enpresak jarduera/irekiera lizentzia lortzeko eskatutako informazioa aurkeztu zuela instalazioetan burututako aldaketak legalizatze aldera.

Ekainaren 28ko 685/2010 lehen ebazpenean udalak epe bat eskaini zuen udal arkitektoak eskatutako agiriak aurkezteko.





Erreferentzia: 2099/2011/23  
2013ko apirilaren 5eko ebazpena

Horren ondoren, 2010eko azaroaren 4ko udal teknikariaren txostenak adierazi zuen isuriaren eremua, landa lurzoruan, ez zegoela saneamenduen sarera kanalizatuta eta alboko lurreko gune batera isurtzen zela. Halaber, pertsonentzako arriskutsua zen taparik gabeko kutxatila bat zegoela aipatzen zen.

Udal arkitektoaren txosten horren arabera, abenduaren 17ko 1292/2010 alkatetza dekretuak sustatzaileari antzemandako hutsuneak zuzen zitzan eskatu zion. Ebazpen horretan bertan hilabeteko epea eman zen egokitzapen obrak egiteko eta lizentziaren baldintzak aintzat hartu gabe jarduera burutzeak zekarren behin-behineko arau-haustearen berri eman zen.

2011ko martxoaren 2an udal arkitektoak txosten berri bat bidali zuen eskatutako jardueretakoren bat egin zela aipatuz baina berriro ere sustatzaileari eskatzen zitzaion isuriaren inguruko neurriak har zitzan inguruko lurra urez gainezkatu ez zitezen.

Horregatik, ebazpen berri bat eman zuen, apirilaren 18ko 314/2011 Dekretuaren bidez (...) enpresari berriro ere eskatuz antzemandako hutsuneak hilabeteko epean zuzendu zitzan eta zegokion zehapen-espedientearen hasiera ohartarazi zion.

2012ko azaroan bidalitako txostenak ez zituen aipatzen Astigarragako Udalak jardueraren funtzionamendua arautzeko ondoren egindako ekintzak.

4. Informazio hori kexagileari helaraztean, horrek azpimarratu zuen oraindik ere isuriak zeudela eta ondoren ez zela inolako jarduerarik egin udalaren eskaerak betetzeko.

Erreklamazioan jasotako alderdiak eta emandako udal erantzuna baloratu ostean, honako gogoetak helarazten dizkizugu:

#### Gogoetak

1. Gure esku-hartzearen helburua Ergobia auzoan garatzen den (...) jardueraren ingurumen kontrolaren inguruan Astigarragako Udalak burututako jarduera aztertzea da.



Erreferentzia: 2099/2011/23  
2013ko apirilaren 5eko ebazpena

Inguruan bizi diren herritarrek bideko euri-uretatik eta (...) hustubideetatik euren lurzatietara doazen isuriek sortutako kalteak azaldu dituzte.

2. Ingurumen diziplinako eskumenen izaera xedaezina izan behar dugu abiapuntu. Saillkatutako jarduerak ingurumen arloko legedira egokitze eta horren kontrola eskatzeko botere publikoek egin behar dituzten jarduerak ez dira hautazkoak. Interes orokorra defendatzeko eta legedi horrek eskatzen dituen betebeharrak betearazten direla bermatzeko antolamendu juridikoak ematen dizkien eskumen publiko horiek ordena publikoko kontua dira.

Ingurumenaren kontrola egiteko ingurumenerako egokia dela justifikatzen duen derrigorrezko prestakuntza-titulu administratiboa atera behar da jarduera abian jarri aurretik. Halaber, ingurumenaren kontrola ez da baimen horretara mugatzen, izan ere, behar bezala garatzeko segimendua egin behar zaio eta emaitza jakinak eskatu behar zaizkio aurrez xedatutako ingurumen-kalitaterako helburuei dagokienez.

Kasu honetan, Ingurumena babesteko EAeko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 55.1 artikulua xedatzen duenez, arau horretan jarduera bat abian jarri ahal izateko ezinbesteko baldintzat jotzen den jarduera klasifikaturako lizentzien araubideari lotuta daude jarduera industrialak. Ingurumen-kontrol hori jarduera abian jarri aurretik egin behar da, ingurumenari zein pertsonen osasunari eragin ahal dizkien kalteak ebaluatzeko eta, horrela, beharrezko prebentzio-neurriak ezartzeko.

Aipatutako arau horrek xedatzen du baimen bikoitza behar dela: bat ingurumen-kalitate egokia bermatzeko duten neurri zuzentzaileak ezartzen dituen eta bestea neurri horiek benetan betetzen direla bermatzen duena. 3/1998 Legearen 61.3 artikulua xedatzen duen legez, aldeko egiaztapen-akta eman ondoren eta klasifikatutako jarduera hasi aurretik emango du Udalak irekiera-lizentzia.

Halaber, jarduera- eta irekiera-lizentziek baimendutako jarduera garatzerakoan sor litezkeen gorabeheren aurrean interes publikoa babestera bideratutako lotura iraunkorra sortzen dute. Argi utzi behar da jarduerak beti bete beharko duela baldintza inplizitu bat, une oro interes publikoaren arabera izatea alegia. Eskakizun horiei esker, Administrazioak beti izango du baimendutako jardueran esku hartzeko aukera, beti ere proportzionaltasunez jokatuta; eskumen horri esker, jarduerak behar bezala funtzionatzen duela bermatzeko beharrezkoak diren zuzentzeko eta egokitze neurriak jarri ahal izango dizkie





Erreferentzia: 2099/2011/23  
2013ko apirilaren 5eko ebazpena

jardueraren sustatzaileei, baita ofizioz ere, eta azkeneko baliabide gisa, baimena baliogabetu ahal izango du ezinezkoa bada interes publikorako eskakizunetara egokitzea, izan ere, hala egin ezean zaintza, segurtasuna, elkarbizitza eta ordena publikoa bermatzeko betebeharrak nagusien kontrako utzikeria izango litzateke.

3. Aztertzen ari garen espedientean Astigarragako Udalak argi utzi du bi udal-txostenek antzemandako hainbat hutsune daudela, administrazio-lizentzietan zehaztutako xedapenak beteko ez zituztenak.

Astigarragako Udalak, jarduera eskaera teknikoetara egokitu gabe abian zegoela egiaztatzean, horren legalizazioa eskatu du hainbat ebazpenetan (aipatutako dekretuak, 1292/2010 eta 314/2011).

Hala eta guztiz ere, bi urte baino gehiago igaro diren arren, horren ostean ez da jaso inolako udal jarduerarik eskatutako neurriak betetzen direla bermatze aldera eta ez da adierazi dagozkion zehapen espedienteen hasiera ere.

4. Gogoratu beharra dago, beharrezkoa den administrazioaren baimenik ez duten jardueren aurrean, legeriak esku hartzeko beharra ezartzen duela horien egokitzapena eskatzeko eta udal aginpideak partzialki edo behin betiko ixtea ere eskatu dezake jarduera Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean ezarritako prozeduraren arabera legeztatzen ez den bitartean.

Honako kexan gertatutakoak bezalako egoerak ekidite aldera, Ingurumena babesteko EAEko otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 64. eta 65. artikuluek honakoa xedatzen dute: kasuan kasuko zigorrak alde batera utzi gabe, alkateak jarduera batek behar duen baimenik gabe funtzionatzen duela jakiten duenean gehienez sei hileko epean legeztatzeko eskatu behar dio titularrari. Bestela, edo jarduera ezin bada legeztatu, *"itxi egingo da, lehenik interesdunari entzunaldia emanda"*.

Hizpide dugun kasuan, udalak antzemandako hutsuneak arautzen saiatzeko esku hartu du, baina ezin izan ditu eteteko aginduaren eta aipatutako legediaren ingurumen-eskakizunak bete.

Zentzu horretan, toki erakundeek ezin dute inolaz ere espedientea luzatu, jardueraren arduradunek jarduera legeriara egokituko dutenaren itxaropenarekin. Ezinbestekoa da udalak kalte- eta hirugarrenentzako arrisku-





Erreferentzia: 2099/2011/23  
2013ko apirilaren 5eko ebazpena

egoera amaitzeko esku hartzea eta beharrezko neurri zuzentzaileak berak hartzea, edo bestela arduradunei euri zuzenean agintzea hori egiteko.

Horrenbestez, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11.b) artikuluan xedatutakoari jarraiki, honako gomendioa egiten dugu:

#### Gomendioa

Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 64. eta 65. artikuluen babesean eta dagozkion zehapenen kaltetan izan gabe, (...) jardueraren sustatzaileari eska diezaion, ezarritako epea gaindika igaro ondoren, udal txostenetan antzemandako hutsuneak zuzendu ditzan.

